

## Leaburura doan errepidearentzat «irtenbidea» eskatu dute bizilagunek

**IBARRA** ▶ «Autoen gehiegizko abiadura» salatu zuten, atzo, Otarreagako eta Apaiz-Errekako auzokideek ▶ 6



Ehun bizilagun inguru bildu ziren atzo errepidean eginitako konzentrazioan. M. SOROA



L. TERRADILLOS

## Gudari Egunean, omenaldia eskualdekoei

**TOLOSALDEA** ▶ Ehunka lagunek gogoan izan zituzten eskualdeko militanteak, herenegun, Tolosan eginitako ekitaldian ▶ 2

**TOLOSALDEA - LEITZALDEA** ▶

## Gerra Zibila bizi izan zutenen testigantzak, astero HITZAN

Francoren tropek egun gutxitan hartu zuten Tolosaldea, orain 70 urte ▶ 6-7

**TOLOSA** ▶

## «Oraindik berririk gabe jarraitzea» salatu dute plataformako kideek

EAJk aurkeztutako Gerontologiko berriaren aurreproiektuaz aritu dira ▶ 2



Atzo plataformakoek eskainitako prentsaurrekoa. E. EZEIZA

**LEITZA** ▶

## 18/98 auziaren aurkako mozioa

Larrain, Aralar eta EA, bultzatzaile ▶ 3

## GERONTOLOGIKOA ▶



Gerontologikoaren Aldeko Plataformako kideak, atzo arratsaldean, prentsaurrekoan. E. EZEIZA

# Lau hilabete eta gero, «berririk gabe»

EAJk aurkeztutako aurreproiektuaren inguruan ez dutela «albiste gehiagorik jaso» salatu zuen atzo plataformak

## ESTI EZEIZA

Ikaturte berriaren hasierarekin batera, Gerontologikoaren Aldeko Plataformak atzo prentsaurrekoa eskaini zuen, «borrokan» jarraitzen dutela adierazteko.

Izan ere, lau hilabete igaro dira Tolosako Udalak Gerontologiko berri baten aurreproiektua aurkeztu zuenetik, eta ordutik hona, plataformakoen esanetan «ez dugu berri gehiagorik izan, eta arazoak hor jarraitzen du». Datuen arabera, egun, egoera honek, orotara, 1.650 pertsonengan du eragina. Hori dela eta, «berhalako irtenbide bat» eskatzen dute, EAJren aurreproiektua aurrera eramango balitz ere, ez bailitzateke orainerako irtenbide bat izango. «Egoitza berri bat eraikitzeke, gutxienez bost urte beharko bailirakete», hori

baieztatu dute plataformakoei. Beraiek emandako datuen arabera, 38 pertsona daude zerrendetan izena emanda, eta hauei, eskualdeko gainontzeko herrietako itxaron zerrendetan dauden adinekoak gehitu behar zaizkie. Hauek gain, beste 22 pertsonen kanpoko egoitzetara joan behar izan dute, Tolosaldeakoetan tokirik ez zegoelako.

Plataformakoen ustetan, 750. ospakizunaren ondotik, «errealitate itzultzeko garaia da». Eta errealitateak zera adierazten du, «EAJK, oraindik ere, uko egiten diola, plataformakoei eta Tolosako Udaleko gainontzeko alderdiek osatutako lan mahaiean parte-hartzeari; egia da ere, orain dela lau hilabete EAJk aurkeztutako aurreproiektuaz, guk informazio gehiagorik jaso ez badugu ere, beste alderdi politikoeta-

koek ere ez dutela jaso», hori adierazi zuten atzo plataformakoei. Beraien esanetan, hori onartu diete beraiei politikariek, egin zuten azken bilera. Horren adibide da, Jose Mari Vieites, Ongizate Batzordeko lehendakariak egunkari batera bidalitako idatzia.

Baina Gerontologikoaren Aldeko Plataformako kideentzat, kezagarriena da, Aldundiak ez dakiela ezer aurreproiektuaz. Hori adierazten du Ahalduko Nagusiak sinatutako agiri batek. Bestetik, plataformakoei emandako datuen arabera, Aldundiko albisteen berri ematen duen [www.gizartekin-tza.net](http://www.gizartekin-tza.net) webgunean ere, ez da proiektu honen inguruko informazio agertzen. Eta hemen, Aldundiak, 2008ra arte aurreikusita dituen egitasmoak ikus daitezke, eta Tolosakoa ez da agertzen.

## POLITIKA ▶

## Eskualdeko militanteen omenez, ekitaldiak

Joan den igandean eta herenegun egin zituzten, Gudari Eguna eta harira



Tolosa eta Lizartza, igande eta astezkeneko ekitaldiak. HITZA

## E. EZEIZA

Herenegun, Gudari Eguna ospatu zen Euskal Herri osoan. Horren harira, zenbait ekitaldi egin ziren eskualdean. Hauek, «1958an hasitako askapen borrokaren ondorioz, bizia eman duten gudariak gogoratu nahi izan dituzte».

Hasteko, joan den igandean, Lizartzan, 100 lagun inguru bildu ziren eguerdian eginak ekitaldian. Bertan, Joxe Bernardo Bidaola *Txirrita*, Joxe Migel Etxeberria *Naparra* eta Ina Zeberio militante zendak omendu zituzten. Lehendabizi, dantzariak aurreratu eta dantzatu eta dultzaina jo zuten hiru gudarien argazkien aurrean. Jarraian, hizlari batek testu bat irakurri zuen,

eta amaitzeko, hamaiketakoan egin zen.

Bestetik, asteazken iluntzean, eskualde mailako ekitaldia burutu zuten, Tolosan. Bostehun lagun inguru bildu ziren herenegun Triangulo plazan. Hemendik abiatuta, Alde Zaharreko kaleetan zehar manifestazioa egin zuten. Iturrien arabera, hasiera batean ibilbidea beste bat izan behar bazuen ere, Ertzaintzaren neurriak zirela eta, aldatu egin behar izan zuten. Ondoren, ekitaldi politikoa burutu zuten Plaza Berrian. Bertan, eskualdeko gudarien erretratuak begira aurreratu zuten eta jarraian hitz batzuk esan zituzten, besteak beste, De Juana euskal presoak gogoratuz.

## urteurrena ▶



### Juanita Amundarain Otegi Juan Miren Mendizabal Benito

VIII. Urteurrena

Urruti zaudete eta zaila da gu zuegan iristea, hainbeste maite zaituztetan batzuentzat, a zer nolako gauza tristea!

Alegera bakarra daukagu, ametsetan sinistea. Zuek ikusteko noiznahi aski dugu gure begiak itxia.

MAITE ZAITUZTEGU, BETI

Zuen alabak, Garazi, Itxaro eta Elorri

ORDIZIA, 2006ko irailaren 29a

► hilberriak  
► urteurrenak  
► eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio berogatik.

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
[tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

VILLABONA ▶

Oinkarik dantza ikastaroa antolatu du

ERREDAKZIOA

Oinkari dantza taldeak gazte nahiz helduentzako ikastaroa antolatu du. Fandangoa eta arin-arinaz gain, erromeriatan dantzatzaren diren betiko dantzak ikasteko aukera eman nahi du, «dantzatzeko aitzakiarik ez izateko».

Ikastaroari urriaren 19an emango zaio hasiera, 20:30etik 21:30era. Egun horretatik hasi eta martxoaren 29ra arte, ostegunero bilduko dira Txermingo ikastolako ganbaran. Izena emateko: harremanak@oinkari.net helbidera idatziz, 660 139 380 telefono zenbakira deituz (18:30etik aurrera) edo astelehen, asteazken eta ostiraletan 19:30etik aurrera Ikastolako ganbarako entsegu lekura gerturatuz. 40 euroko kostua du ikastaroak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroško dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

POLITIKA ▶

Etxeratek elkarretaratzeak deitu ditu ohiko lekuetan

Segik Espainiako Gobernuak presoak «xantaiarako erabiltzen» dituela salatu du

ERREDAKZIOA

Hilabete bakoitzeko azken ostiraletan egin ohienez, Etxeratek elkarretaratzeak burutuko ditu, euskal preso politikoen eskubideen alde. Bide batez, herritarrei parte hartzeko deialdia egin die. Horrela, Tolosaldean eta Leitzaldean, ohiko lekuetan, ordu hauetan egingo dituzte elkarretaratzeak: 19:30ean, elkartuko dira Alegian, Amezketan, Anoetan, Ibarrran eta Tolosan. 20:00etan, berriz, Adunan, Asteasun, Ikaztegiatan, Leitzan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkil.

Tolosako elkarretaratzean Jokin Gorostidiren alarguna den Itziar Aizpuruaren esker ona jakinaraziko dute, Gorostidiri Tolosan egindako omenaldian parte hartu zuten herritarrei.

Segik bat egiten du

Segik ere bat egiten du elkarretaratzearekin, ohar baten bidez. Erakundeak deia egiten dio «euskal gizarteari, eta zehazki euskal gazteriarri, euskal preso politikoen eskubideen defentsan kalera irteteko eta hein berean Espainiako Gobernuak txantaiarako egiten duen erabilpena eta bizi osorako espetxe zigorraren ezartzea salatzeko».



Tolosako Triangulo plazan egindako elkarretaratzeetako bat. I. GARCIA

Espainiako eta Frantziako gobernuak euskal preso politikoa «xantaiarako eta trukerako txanpon gisa erabili nahi dituzte», diote gazte erakunde-

atik, «euren egoera ahalik eta gehien estuturik eta baldintza-pen hori Euskal Herrian ireki beharreko prozesu demokratikoaren baldintzatzaile gisa jarri nahian, eta prozesuaren nondik norakoak desitxuratu eta deskontestualizatu nahian».

Horren aurka «herri presioa» egiteko deia zabaldu nahi du Segik, «herri borrokaren bidez eta etengabeko mobilizazioen bidez lortuko baita euskal presoan aberrirratzea, kaleratzea eta euren eskubide guztien jabe Euskal Herrian izatea».

LEITZA ▶ POLITIKA

Aralarrek, EAK eta Larrain herri plataformak 18/98 auziaren aurkako mozio bateratua onartuko dute

Elkarretaratzea 20:45ean egin ondoren osoko bilkuran aurkeztuko dute mozioa

ERREDAKZIOA

Aralarrek, EAK eta Larrain herri plataformak mozioa aurkeztu eta onartuko dute 18/98 auziaren aurka, gaurko osoko bilkuran. Orain bi aste inguru hitzartu zuten hiru alderdiek mozioa batera aurkezteko udal-letxean. Batzarraren aurretik elkarretaratzea burutuko dute 20:45ean, mozioarekin bat egingez.

Mozio horretaz gain, beste gai batzuk ere jorratuko dituzte, 21.00etatik aurrera, udal-letxean egingo den osoko bilkuran. Besteak beste, UPNko Daniel Mujika zinegotziak

karguari uko egitearen jakinarazpena, Evaristo Oronozek bultzatutako hirigintza planaren aldaketa puntualaren ha-

sierako onespina eta Larrain herri plataformak aurkeztutako mozioa zein *Leitzako mendietako larreak* eta *Maxurre-*

*nea herriarentzat* erabaki proposamenak. Horiez gain ohiko oharrek, eskariak eta galderek beraien lekua izango dute.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Zer iruditzen zaizu Voith-Gorostidi etxebizitza tasatuetaiko zozketan parte hartu ahal izateko jarritako baldintzak? Sartu webgunean eta eman zure iritzia gai honi buruz edo bertan agertzen diren beste eztabaidei buruz.

iragarki laburrak ▶

- LANA Garbitzaileak.** Bi neska eskaintzen dira orduko garbiketara artizeko: etxebizitzak, tabernak, atariak, lokalak... Eskarmentu handia. 657 71 96 17 edo 943 68 30 57.
- Haur zaintzailea.** Pertsona bat behar da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko Anoetan. 943 65 0032 edo 659 98 16 87.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

**SALGAI Etxebizitza.** Leitza 100 m2ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. 699 46 13 65 zenbakira deitu.

SAN MIGUEL JAIK ▶

# Aldaban hasi, Iruran bukatu

Iruran jubilatuen jolasetan azken urteetan baino jende gehiago bildu zen; Aldaban goizean hasiko dira

## NEREA URBIZU

Batzuk bukatu eta besteak hasi. Aldaban eta Iruran jai giroa izango dute, San Miguel Eguna gainean izanik, haren omenez antolatutako egitarau biribila egin dute.

Asteartean, Irurako jubilatuek jolasak izan zituzten, eta 36 bat lagun bildu ziren, tokan eta botean aritzeko. Ondoren, mahai jokoak egin zituzten: eskoban, seiko jokuan, puntuan, eta musean ibili ziren. Etzi, sari banaketa egingo dute.

Atzokoan pilota eskolako haurrak aritu ziren palan eta xarean jolasten, trinketeen. Ondoren, Loatzo musika eskolako trikitilariak eta buruhandiek kalejiran Shareraino joan ziren, eta laguntzen joan ziren guztiek txistor jateaz gozatu zuten. Gau aldera antzerkia

izan zen frontoian. Goizean eta arratsaldean dantzari txikiak izango dituzte gaur, hainbat herrietakoak, gainera. Egun osoan zehar musika izango dute: Loatzo musika eskolako en saioa, Isidro Larrañagaren akordeoi orkestraren kontzertua, eta gauean Gariren kantaldia, Nekin taldearen dantzaldiarekin bukatzeko.

## Aldabako asteburua

Aldabako urteko astebururik garrantzitsuenetakoa iritsi da, eta horretarako bertako Auzo elkarteak hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Gaur hasiko dira jaiak, eta txupinazoa tabernako balkoitik botako dute, 10:30ean.

11:00etako mezaren ondoren hamaiketako izango dute herritarrek. Gauera arte itxa-



Irurako pilota eskolako haurrak xarean jokatzen, atzo. I. TERRADILLOS

ron beharko da 21:00etan afaria egiteko. Ikaztegiatiko Aina eta Miren izango dira bertan, trikitixarekin.

Larunbata arratsaldean patata tortilla lehiaketan parte hartzeko dena erraz jarri dute: ez dira oinarritzko lehengaiak eraman beharko: sua, sukalde- txoak, platerak edo bakoitzak erabiliko dituen mahai tresnak

bakoitzaren kontura izango dira.

Zahagi ardoa izango da jarraian, eta hemen ere jatekoa eraman beharko dute bakoitzak; izan ere, Aldabakoek jarriko dute edaria. 23:30ean, Tolo-sako eta Baliarraingo Irma eta Amets trikitilariak ariko dira saioa eskaintzen. Eta etzi, gehiago.

PILOTA ▶

## Beotibarren, Ibarren eta Amezketa, Probintzialak

N. URBIZU

Aurrera-Saiatz Pilota eskolako kadeteen bikoteak gaur Anaitasunakoen aurka jokatuko du Ibarren, 19:15ean. Ondoren, Eibarrekoen kontra jubilenen artekoa, eta azkenik Behar Zanakoen aurka seniorren partida. Bihar, al-diz, Ilunpekoen aurka ariko dira seniorrak banaka, Beotibarren, 10:30ean. Bigarren partida Añorga 2koen aurka izango dute, eta bukatzeko Zazpi-Iturrikoekin lehiatuko dira senior binakakoetan.

Zazpi-Iturrik gaur Amezketa bi partida jokatuko ditu: 22:00etan hasiko dira, eta lehena nagusien artekoa izango da Errenterikoen aurka. Nagusien 2. mailakoek Lazkaokoen kontra egingo dute. 16:00etan, bihar Añorgan jokatuko du gazteen bikote bak- tek.

ALEGIA ▶

## Intxurrekoek bihar eta etzi dituzte euren partidak

N. URBIZU

Intxurre areto futbol taldeko neskek etzi jokatuko dute ligako lehen partida, 12:30ean, Donostiako La Salleren aurka, Loliolan. Bihar, al-diz, lurraldekoen artekoan ariko dira mutilak, La Salleren aurka hauek ere, 16:30ean. Jubilenen mailakoek etxean jokatuko dute Beasainen kontra, 16:00etan. Kadeteak Lazkaora joango dira jolastera, 11:00etarako.

## EGITARAUAK ▶ EGUNEZ EGUN

### ALDABAKO JAIK

#### GAUR

**10:30.** Txupinazoa.  
**11:00.** Meza nagusia.  
**12:00.** Hamaiketako herritarrentzat.  
**21:00.** Herriko afaria bertako jatekxan. Aina eta Miren trikitixarekin arituko dira afaria alaitzen.

#### BIHAR

**19:30.** Patata tortilla lehiaketa. Jangaiak prestatuta egongo dira. Beste guztia, sua, zartagia... bakoitzak eraman beharko ditu.  
**21:00.** Zahagi ardoa, pilotalekuan. Aulkia, ardoa eta sagardoa egongo da. Gainerakoa bakoitzaren esku!  
**23:30.** Erromeria, Irma eta Ametsekin.

#### ETZI

**11:00.** Meza nagusia.  
**12:00.** Pilota partidak. Infantilak: Urretabizkaia eta Bereziartu; Maiza eta Gaiurralde. Jubenilak: Alonso; Iburguren eta Artola.  
**18:00.** Ume jolasak.  
**19:30.** Bertsolariak: Agirre eta Larrañaga.  
**Jarraian.** Kupela taldearekin erromeria.

#### IRURA

#### GAUR

**09:00.** Goiz eresia txistulariekin.  
**11:00.** Herriko zaindariaren ohorezko meza nagusia.  
**11:45.** Irurako dantzari txikien saioa San Miguel plazan. Ondoren hamaiketako herrikoia San Miguel plazan eta Gazte

Alaiak elkartearen Maialen Lujanbio eta Amaia Agirre bertsolariak alaitua.  
**13:00.** Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia, San Miguel plazan.  
**18:00.** Alegia, Anoeta, Berastegi, Villabona eta Irurako dantzari txikien saioa.  
**20:00.** Isidro Larrañagaren akordeoi orkestraren kontzertua San Miguel plazan.  
**23:30.** Gariren kantaldia San Miguel plazan. Ondoren dantzaldia Nekin taldearekin.

#### BIHAR

**10:30-14:30.** Gaztetxoztako parkea Loatzo plazan.  
**13:30.** Ezkonduen Dantza Soka San Miguel plazan.  
**14:30.** Ezkonduen bazkaria Aizpurua jatekxan.

**16:30-19:30.** Euskal kirola, jolasak eta haur-animazioa Keimarekin San Miguel plazan.  
**20:00.** Bike Trial Show erakustaldia Loatzo plazan.  
**23:00.** Play-back jaialdia frontoian. Ondoren frontoitik San Miguel plazaraino herensugea eramango da prozesioan eta azken trakarekin erreko da. Jarraian dantzaldia San Miguel plazan Laket taldearekin.

#### ETZI

**12:00.** Meza Nagusia. Ondoren Irurako dantzari txikien emanaldia San Miguel plazan.  
**14:30.** Jubilatuen bazkaria Zaharren Biltokian. Bazkariaren ondoren jokuetako sarien banaketa eta dantzaldia.

**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behe • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

**AMETZ**  
ESTANKOA

Tabakoa • Prentsa • Goxokiak

M. Goi Angeru enparantza, 2 • 20271 IRURA  
Tel.: 943 69 96 51



IBARRA ▶ GIZARTEA



Otarreaga eta Apaiz-Errekako bizilagunak «kezkatuta» daude segurtasuna «arriskuan» ikusten dutelako, «are gehiago haur txikien kasuan». m.s

# Irtenbidea eskatu dute Otarreaga eta Apaiz-Erreka inguruko bizilagunek

Ibarratik Leabururako errepideak sortzen duen «arriskua jasanezina dela eta», atzoko elkarretaratzearekin irtenbide azkarra eskatu diote bizilagunek Udalari

MADDI SOROA

Otarreaga eta Apaiz-Errekako ehun bizilagun inguruk elkarretaratzea egin zuten, atzo arratsaldean. Helburua, Udalari Ibarratik Leaburura doan errepidearen inguruko irtenbidea eskatzea.

Badira gutxienez bost urte Otarreaga eta Apaiz-Errekako bizilagunak zer egin ez dakitela. «Arriskua, ezinegona, hase-reea» dituzte barnean. Segurtasuna nahi dute «bai haurtxoek baita helduek ere, kalean harantz eta honantz lasai ibiltzeko, askatasuna izateko, zer-

bait gertatuko denaren beldur-rrarekin ez bizitzeko». Arrazoi nagusia, Ibarratik Leaburura doan errepidea da, izan ere, «bertatik egunero ziztu bizian igarotzen diren autoek sekulariko arriskua sortzen baitute».

Garai batean, autobiarako sarrerarik ez zegoenean eta industrialde berria berdegunea zenean, «ez zegoen inongo arazorik, ohiko kotxeak pasatzen ziren, gutxi eta poliki» azaldu dute bizilagunek. Orain, ordea, egoera oso bestelakoa dela diote; «autobidera sarrera egin zutenetik auto kopurua asko igo da». Gainera, «industrialde

berria egin zutenetik izugarri igo da kotxeen abiadura» adierazi dute Otarreaga kaleko bizilagunek. Beraz, arazo nagusia ez omen da ibilgailu kopurua, kotxeen abiadura baizik, izan ere, «50 kilometro orduko abiaduran joan behar den tokian, gutxienez abiadura bikoitzean joaten dira».

### Non dago irtenbidea?

Bizilagunek denetarik egin dute jada. Udalarekin hitz egin, Diputaziora deitu eta eskutitza bidali, sinadura bilketa... baina antza, «ez du inork irtenbide-

rik ematen, eta lehen bezala gaude».

Iaz, Ibarratik Leaburura doan errepidearen eskuinean espaloia egingo zutela hitz eman zuen Txelo Romeo Ibarrako alkateak, baina bizilagunak «oraindik zain» daude.

Bizilagunek adierazitakoaren arabera, «irtenbide azkar bat eskatzen dugu; espaloia edota oinezkoen koskadun pasabideak egitea», izan ere «ezin dugu horrela jarraitu gure biziak jokoan baitaude». Hala, gaurtik aurrera, asteen behin bidea moztuko dutela adierazi dute.

TOLOSA ▶

## ‘Esperientziak’ proiektatuko dute bihar, 21:00etan

Bihar, 21:00etatik 01:30era 9.000 irudiren artean aukeratutako argazkiak proiektatuko dituzte Gipuzkoako Artxibategi Orokorreko fatxadan. Argazkiez gain, Tolosaldeko 70 urtetik gorako pertsonen egindako elkarrizketak ikusi ahalgo dira.

ASTEASU ▶

## Pilota partida profesionalak gaur, frontoian

Asteasuko frontoian profesionalen bi pilota partida izango dira gaur, 22:00etan hasita. Lehenengoan, Mendizabal I-Beobide eta Bellosco-Escudero ariko dira, eta bigarrenean, Olaizola II-Begino eta Olaizola I-Beloki.

TOLOSA ▶

## Ttentteken izena emateko epea zabalik

Tolosako Ttenttek aisialdi taldeak ekin dio ikasturte berriari eta izen-emate zerrendak zabaldu dituzte datorren astelehene eta astearterako. Interesatuak San Frantzisko lokaletara joan beharko dute 18:00etatik 20:00etara.

IBARRA ▶

## Kilometroetarako autobus txartelak salgai Zubiaurren

Kilometroak 2006rako autobusa antolatuta du Ibarrako Gazte Asanbladak. Txartelak Zubiaurre tabernan daude salgai, Ibarrako ikasle eta langabetuentzat 5 eurotan, eta gainontzekoentzat 9.

hitza

Harpidedunen txokoa

5 lagunentzat bina sarrera, ‘KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL’ pelikula ikusteko, Tolosako Leidor Zineman, hilak 30 larunbata, 19:30ean.

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: 943 65 56 95 (gaur 11:00-14:00)

ZORTE ON!!



## ESKUALDEKO GERTAERAK ▶

Gerra Zibila hasi zela 70 urte bete dira aurten. XX. mendeko gertakizun garrantzitsuena gure eskualdean jorratuko du HITZAK astero hemendik aurrera. Gerra bi aldeetan zuzenean eta zeharka bizitu zutenen testigantzak jasoko ditu. Hasteko, eskualdeko gertaerak laburbilduko ditugu.

# Egun gutxitako borrokaldia

Tolosa, Gipuzkoaren giltza, abuztuaren 11n hartu zuten Francoren alde altxatu zirenek; eskualdeko beste herrieekin, aurreko eta ondorengo egunetan gertatu zen

JOXEMI SAIZAR

Tolosaldean eta Leitzaldean 1936-39ko Espainiako Gerra Zibila bi aldeetan bizitu zutenen testigantza jaso aurretik, gure eskualdean gertatutako pasarte belikoak laburbilduko ditugu HITZAREN sail berri honen lehen kapitulo honetan. Horretarako Pedro Barriosok hiru liburutan jasotako hartu dugu oinarritzat: *Verano y revolucion. La Guerra Civil en Gipuzkoa. Cien años de socialismo en Tolosa 1891-1991* eta *Tolosa. Euskal abertzaletasunaren bihotza*. Horretaz gain, Josu Chueca eta Luis Fernandezek *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian* eta Iñaki Egañaren *1936. Guerra Civil en Euskal Herria* liburua ere kontsultatu ditugu.

Tolosa 1936ko abuztuaren 11n hartu zuten Francisco Francoren alde altxatu zirenek, eta inguruko herriak aurreko eta ondorengo egunetan. Hiru bidetatik iritsi ziren Francoren aldekoak: Araxes, Berastegi eta Oria bailaretatik. Pablo Cayuela teniente koronelaren tropak Altsasutik Idiazabalera joan eta uztailearen 26an sartu ziren Beasainen, Ordizia berehala hartu eta handik Tolosaruntz abiatu ziren. 1.000 gizon ingu-



Milizianoak ukabila jasota agurtzen Alegiako posizioetara zihoazela. '1936 GUERRA CIVIL EN EUSKAL HERRIA'

ru ziren bi zutabetan banatuta, gehienak soldadu prestatuak eta artilleria bazuten. Milizianoak berriz, «gaizki antolatuta» zeuden Barriusoren ustez. Zutabe bat Oria ibaiaren ezkerrean agindupean, Itsasondo ingurua miatuz. Bestea, Baeza kapitainarekin, Zaldibia, Abaltzisketa eta Gaintzara abiatu zen, kainoen erasoja jasoz.


## Oriako frontean atzera

Errepublikaren defendatzaileek Tolosa babesteko Alegia-Orendain-Gaintza-Aldabamendia defentsa lerroa ezarri zuten. Aldirren indarrek Aldaba abuztuaren 5ean hartu zuten. Beste batzuk, Gual komandantearekin, Gaintza eta Orendain okupatzea zuten helburu. Hurrengo egunean, Gonzalez Unzalu komandantearekin,

250 falangistez osatutako zutabearen laguntza jaso eta hartu zituzten, erasotzaileek sei baja izanik. Milizianoak Tolosara erretiratu ziren. Hurrengo egunean Alegia okupatu zuten eta Tolosa egoera larrian gelditu zen, herria inguratzen duten mendi guztiak hartuta baitzuden. Abuztuaren 7tik aurrera Cayuelaren eta Rafael Latorren —Berastegitik zetorrena— gudataldeak batera aritu ziren

Tolosa inguratu eta Azpeitia eta Donostiarako bideak moztuko.

Bikondoaren agindupean Betelun bilduta zeuden boluntarioek Gipuzkoa aldera aurrera egiteko agindua jaso zuten uztailearen 22an. Arratsaldean martxan jarri eta mikelteen etxea, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan, tiroketa baten ondoren hartu zuten, guardian zeudenean postua utzita. Hu-



**Salgai (Tolosa)**  
Larramendi kalea. 100m2, 3 logela, egongela, sukaldia bainugela eta igogailua.  
**Salgai (Tolosa)** La Estrella. 93m2. Egongela, 3 logela, sukaldia eta bainugela ekipatuak. Garaiea aukeran.  
**Salgai (Tolosa)**  
Korroo kalean 75m2. Diseinuz eraberritua. Igogailua eraikitze lanetan.  
**Salgai (Tolosa)** Korroo kalean 70m2.  
Eraberritzea. Eskaratz eta teilatu berriak.  
**Salgai (Tolosa)** K/Nagusian 50m2-ko atikoa. Erdi eraberritua.  
**Salgai (Ibarra)** Ibarra 90m2. Eraberritua estreinatze. Aparta.  
**Salgai (Aitani)** San Gregorio. 60m2, 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Eraberritua estreinatze.  
**Salgai (Legorreta)** Baserrira eraberritua, sartzeko prest. 2 solairu 120m2-koak. Eguzkitua eta bistekin.  
**Salgai (Legorreta)** Baserrira. 180m2-ko 2 solairu. Eguzkitua eta bistekin.  
**Salgai (Zumarraga)** Baserrira. Bizitzera sartzeko prest. 600m2 lur saila barne. Etebiziak 450m2.  
943 69 71 96 • 675 705 268  
Korroo Kalea 50

**ELOLA**  
bede ALTZARIAK

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurrira.

Tel.: 943 65 29 01  
Lizardi poeta, 2  
lo egiteko eta atsedean hartzeko onena  
TOLOSA

**Bat**  
Garajea

Ondo pasa Irurako jaietan!

Tel.: 943692205 • Faxa: 943693771 • Ibaiondo Indus.11 • 20271 IRURUA

**ZABALA DESGUAZEA**

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biiltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Indutrigunea, 18 • BELAUNTZA

**Carpintería ATARI, S.L.**  
AROSZTEGIA

Arroztegi mekanikoa. Olibu eta herrialtzariak.  
Eskalera eta altzariak neurria. Eraberritzeak eta ibal komertzialerako arrosategia.

Tel.: 943 69 01 40 • Faxa: 943 69 34 29

**DATAK ▶**

Francoren alde altxatutakoek Tolosaldeko zenbait herri okupatu zituzten datak:

- Uztailak 24.** Berastegi.
- Uztailak 25.** Lizartza.
- Uztailak 29.** Leaburu.
- Abuztuak 5.** Aldaba.
- Abuztuak 6.** Orendain.
- Abuztuak 7.** Alegia.
- Abuztuak 11.** Tolosa.
- Abuztuak 15.** Zizurkil eta Aduna.

rrengo egunean Becerra komandanteak ordezkatu zuen Bikondoa Lizartza eta Tolosara jotzeko aginduarekin. Uztailaren 25ean Lizartza okupatu zuten borrokaldi labur batez eta Leaburu aldera jarraitu zuten, Berastegiko errepidetik zetorren Venancio Tutorren zuta-bearen laguntzaz.

**Leabururen erasoa**

Berastegitik zetorren zutabea Iruñean osatu zuten 90 erreketek —*txapelgorriak*— uztailaren 19an eta Donostia eta Tolosatik —20 tolosar, Pantaleon Zabalarren agindupean— ihes egitea lortu zuten erreketek elkartu zitzaizkien, Barrusok bere liburuan dioenez. Leitzan zuten, Urtoko mendateko mikelte postua izan zen bere lehen helburua. Erasoa Becerraren gizonekin batera egin zuten eta borrokak zazpi hildako eragin zituen defendatzaileen artean eta bakarra erreketean artean.

Uztailaren 24an Berastegin sartu ziren erresistentziarik gabe. Hemen Tutorren taldeak errefortzuak jaso zituzten 280 erreketek izatera iritsiz. Uztailaren 25ean bi zutabe horiek Leaburu inguruan kokatzen dira, Becerrarena Otol eta Azpaizu mendisketan, 135 gizon dira erreketek eta falangisten artean. Hauei Sicilia Mendiko Ehitza-rien Bataioia elkartu zitzaizen. Belauntzatik Leaburura inguratzeko pasatu zuen eguna Tutorrek. Egun horretan bi zutabeak Latorre teniente koronela-aren agindupean gelditu ziren.

Hilaren 29an artilleria sekzio baten laguntza jaso zuten bi zutabe hauek eta hurrengo egunean Leaburu erasotzeko aginduz Latorrek, artilleriako bonbardaketarekin hasiz. Erasoa ustekabean harpatu zituen eta herria okupatu zuten, Txaramako mendian lekua hartuz. Latorrerren gudataldea abiazio errepublikarrak erasotu zuen Leaburua, baina Tolosa erasotzeko leku egokian mantendu zen, Madril-Irun errepidearen ardatzetik zetozen Cayuelaren tropen au-

rreparenaren zain Tolosa erabat inguratzeko.

**Probintzia osoaren giltza**

Abuztuaren 10ean Tolosa erabat inguratuta zegoen eta erreketek talde batek Imaz kapitainarekin Uzturre mendia okupatu zuen. Egoera larria zen, nahiz eta uztailaren 28an «ahalik eta gizon gehien» eskatu fusil eta munizio ugariarekin «probintzia osoaren giltza den Tolosa etsaiaren erasoetatik babesteko». Pedro Gofi Fronte Popularraren batzorde iraunkorreko lehendakariak eta Galo Diaz buruzagi anarkistak sinatu zuten ohar hori eta askotan eskatu ondoren egin zioten kaso. Abuztuaren 3an Defentsa Juntako Gerra Komisaldiak zutabe bat antolatu eta Tolosara bidali zuen Santiago Zamuz, Carlos Sinisterra, Emilio Gandoy, Luis Bermejo eta Gomez Buillan kapitainaren agindupean, baina errepublikarrek ez zuten erasotzaileak geldiaraztea lortu. Uzturre eta Izaskungo maldetan eta San Blaseko kanposantuan jarri zuten defentsa lerroa. Hilaren 30ean artilleriako hiru piezaren laguntza jaso zuten Donostia-ko koarteletatik, berehala bi pieza San Blaseko Muxika baserritik eta bestea Papelera Españolatik tiro egiten jarri.

Abuztuaren 10eko arratsaldean lehen erasotzaileek Tolosara inguratu eta tren geltokia eta Papelera Española hartu zituzten. Abiazio errepublikarren erasoa jaso zuten. Gau horretan bertan Tolosa ebakutzea erabaki zuen Gipuzkoako Defentsa Juntak Urtizbenea kapitainaren indarrak Villabonara erretiratzeko eta han behin-behineko erresistentzia lerroa ezartzeko aginduz, Urnietan lubakia egin bitartean. Hala egin zen «nahiko modu ordenatuan».

**Azken defentsa lerroa**

San Blas eta Izaskun aldeko defendatzaileek atzera egin behar izan zuten herriraino, azken defentsa lerroa zubi Berrian eta San Frantzisko kaleko barrikadetan ezarri. Tropek herria aurretik erasotu behar zuten, Oriaren ubidea jarraitu zuten, inguruko mendiak okupatu eta defendatzaileak inguratuko. Jesus Larrañaga komunistak, Defentsa Juntako lehendakaria, gidatutako konboi bat iritsi zelako ez zituzten erabat inguratu eta herriaren azken defendatzaileak ebakuatu zituzten. Cayuelaren tropek okupatu zuten Tolosa abuztuaren 11n, hegazkinderiaren erabateko erasopean. Sterr kazetari britainiarrak hala kontatu zuen Tolosaren okupazioa: «Koman-



Tolosa defenditu zutenek Triangulon jarri zuten azken defentsa lerroa. M. JESUS LABAIENEK UTZITAKO ARGAZKIA

dante karlista oinez iritsi zen alkatetzara eta Fronte Popularrereko ofizialen bazkariaren hondarrek in topatu zen. Ehun preso egin zituzten eta ez dut uste denbora asko edukiko zituztenik zain». Hurrengo egunean, abuztuak 12, goizeko zazpitan Gerrarako Batzorde Karlistak Fidel Azurza alkate eta bere konfidantzako 19 zinegotzi izendatu zituen.

Hilaren 12, 13 eta 14ean Tolosaren okupazioa sendotu egin zuten. 12an erreketek herrira zetozen bi kamioi blindatu eta sei miliziano harrapatu zituzten. Egun horietan abiazioaren etengabeko bonbardaketa jasan zuten tropek, baina eragin handirik gabe. Tolosa konkistatu ondoren, Gipuzkoa hegoekialdean borrokatzen ari ziren indarrak berrantolatu ziren.

Beasaindik zetorren Cayuelaren zutabea eta Berastegitik zetorren Latorrerren zutabea, 2.500 gizon guztira. Iruretagoiena koronelaren agindupean jarri zituzten hilaren 14an bi helburu nagusirekin: alde batetik Andoain aldera jarraitu Oria ibaitik Donostia presionatzeko eta Oiartzungo indarrek lotzea, eta bestetik Tolosa ziurtatu Azpeitirako errepidea moztuz, abertzaleek defentsa lerroa antolatzen ari zirelako bertan. 15ean Latorrerren gizonak Berastegira joan eta Leitzaran bailararik aurreratu ziren Andoain aldera. Cayuelaren indarrak Zizurkil, Aduna eta Sorabillara iritsi ziren. Gonzalez Unzuluren tropak Bidaniara joan eta Azpeititik zetozen milizianoekin topo egin zuten, Tolosa aldera eginez eta Urkizun lubakiratu. Andoain hilaren 16an ebakuatu zuten bere defendatzaileak.

**1936ko hauteskundeak**

Espainiako Gerra Zibila hasi baino hilabete gutxi batzuk lehenago, 1936ko otsailaren 16an, Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren Hiru indar nagusi aurkeztu ziren Gipuzkoan: Koalizio Kontra-iraultzailea (eskuindarrak), EAJ eta Fronte Popularra (errepublikazaleak). Eskualdeko herri nagusienetako emaitzak emango ditugu ezagutzera. Tolosan Koalizio Kontra-iraultzaileak irabazi zuen 2.238 botorekin, EAJ (1.879) eta Fronte Popularraren (1.726) aurretik. Ibarren ere Koalizioak irabazi zuen (240), EAJ (124) eta FPren (43) aurretik. Villabonan EAJk irabazi zuen (400 boto), Koalizioa (243) eta FPren (202) aurretik. Alegian ere EAJk irabazi zuen (249), Koalizioa (149) eta FPren (55) aurretik. Herri txikiagoetan, EAJ Aduna, Anoeta, Baliarrain, Bidania, Hernialde, Ikaztegieta, Irura, Latorraul, Orea eta Zizurkilen irabazi zuen. Koalizio Kontra-iraultzaileak berriz, Abaltzis-

keta, Albiztur, Alkiza, Altzo, Amezketa, Asteasu, Belauntza, Berastegi, Berrobi, El-duain, Gaztelu, Goiatz, Lizartza eta Orendainen. FPK Leaburu irabazi zuen. Guztira, Tolosaldean Koalizioak 5.360 boto lortu zituen, EAJk 5.290 eta FPK 2.318. Gipuzkoan EAJk 50.285 boto jaso zituen, Koalizioak 45.095 eta Fronte Popularrak 41.073 boto.

Tolosako Udalak aldaketa ugari izan zituen gerraren aurreko urte eta hilabeteetan. 1931ko udal hauteskunde ondoan EAJko Doroteo Ziarriz atera zen alkate karlisten eta abertzaleen botoekin, baina gutxi iraun zuen, dimisioa aurkeztu zuelako. Antonio Maria Labaien abertzalea jarri zuten alkate, aurrena karlisten laguntzarekin eta gero errepublikazale-sozialisten euspenari esker. Gero koalizioa hautsi eta Fidel Azurza tradizionalista izan zen. Gora behera batzuen ondoren, 1936ko ekainaren 8an Labaien hautatu zuten berrito alkate. ◀

**iragarki laburrak ▶**

<b>LAN HEZKUNTZA</b>	Publikoetan. 943313782.
<b>Gidiariak.</b> Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritzan, Udaletxeetan eta Erakunde	<b>Harreragileak -Administrari laguntzaileak.</b> behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.



- iturgintza
- berokuntza
- aire egokitua
- gasa
- inst. industrialak

Jai zoriotsuak opa dizkizue irurar guztiei

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • 656416808



**AGENDA ▶**

**JAIAK**

**Aldaba.** 10:30ean, txupinazoa; 11:00etan, meza; 12:00etan, hamaiketako herritarrentzat; 21:00etan, afari herrikoia, trikitalariekin batera.  
**Irura.** 09:00etan, goiz eresia txistulariekin; 11:00etan, herriko zaindariaren omenezko meza; 11:45ean, Irurako dantzari txikien saioa, San Migel plazan; ondoren, hamaiketako eta Gazte Alaia elkartearen Maialen Lujanbio eta Amaia Agirre; 13:00etan, Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia; 18:00etan, dantzari txikien saioa; 20:00etan, Isidro Larrañagaren orkestraren kontzertua; 23:30ean, Gari abeslariaren kontzertua; ondoren, dantzaldia Nekin taldearekin.

**DEIALDIAK**

**Bidegoian.** Kultur Astearen baitan, 21:00etan tertulia, Haimar Zubeldia eta Inigo Chaurreau txirindulariekin, udaletxeko pleno aretoan.  
**Lizartza.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, liburutegian, 17:00etan.  
**Orexa.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, udaletxeko ganbaran, 18:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Kameren aurrean kantari

**TOLOSA ▶** ETBko Betizu saioak 'Egin Kantu!' saioa lehen atala grabatu zuen, atzo, Tolosan; gazte ugari bildu zen Plaza Berrian



Nerea Aliasek zuzendu zuen atzoko *Egin Kantu!* saioa, Plaza Berrian. ESTI EZEIZA

**ERREDAKZIOA**

**K**antu kantari. Halaxe ari-itu ziren, atzokoan, Tolosako Plaza Berrian bildutako gaztetxoak. Telebista kamerak, eszenatokia, mikrofonoak, soinu teknikariak, ... Guztia prest zuten ETBkoek *Egin Kantu!* saioaren grabaketarako eta tolosarrek ez zuten hutsik egin. Hala, Nerea Aliasek gidaritzapean, Euskal Herriaren herriz herri ibiliko den Betizu saioaren lehen atala grabatu zuten atzokoan. Giro berezia, beraz, nabaria zen herriko kaleetan. Aspaldiko eta egungo kantuen doinuak entzungai izan ziren. Bestalde, parte-hartzaileen artean eta ikusle moduan bertan izan ziren haurtxoaren artean sari interesgarriak banatu zituzten teledibistakoe.

**AGURRAK ▶**



**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**hitza**  
 agurren tarte

**Gure gomendioa**

**ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA**

www.ekar.com

**ekar**  
 elkar ezagutzen dugulako